



## **HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA**

### **2023ko irailaren 5ko bilkura**

Bi mila eta hogeita hiruko irailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine, GOICOECHEA Iñaki.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko agorrilaren 31

Afitxatze eguna : 2023ko agorrilaren 31

### **4. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESLEIPENA MARI GORRI ELKARTEARI (7.5.2 nomenklatura)**

Auzapezak, Mari Gorri elkarteak egin dirulaguntza eskaera aurkeztu du. Elkarteak 2021az geroztik euskarazko gazte literatura Azoka bakarria antolatzen du Saran. Aurten, urriaren 20 eta 21ean iraganen da.

Auzapezak zehaztu du iaz bezala aurten Ortzaizeko eskoletako hirurogei bat haurrek parte hartuko dutela, eta elkarteak haur bakoitzari 15 €ko eros-bonoa oparitu nahi diola.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak,

- ERABAKI DU, Mari Gorri elkarteari 715 euroko dirulaguntza ematea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko irailaren 5ean

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/09/08an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/09/08an.